

9. ATALA: KOSTUEN EGITURA

Gure kostu finko bakarra lokalaren alokairua izango da, eta hau hilean 700 € ingurukoa izango da. Kostu aldakorrak berriz oloa, espelta, txia, irin integrala, indardun irina, zekalea, kalabaza haziak, ekilore pipa haziak, liho haziak, azukrea, ura, gari irin integrala, olioa, kinoa, espeltazko irin integrala, gatz fina, olozko irina eta gurina izango dira. Azken hauek ekoizpenaren arabera aldatzen joango dira. Horietaz gain, argindarra eta gasa ere kostu aldakorrak izango dira. Gure enpresaren helburua bezeroari balio erantsia duten produktuak eta produktu pertsonalizatuak eskaintzea izango da. Gure kasuan eskala ekonomikoa aplikatu daiteke ekoiztako kantitateak gora egiten duenean.

